

Donostia, 2025eko urtarrilaren 2a

ALDAKETAK DBUSEN ZERBITZUETAN URTARRILAREN 5EAN, ERREGEEN DESFILEA DELA ETA

Urtarrilaren 5ean, igandean, **17:30etik 19:45era** gutxi gorabehera, **Erregeen Desfilea** egingo da, eta, hori dela-eta, aldaketa hauek egingo dira Dbuseko zerbitzuetan:

- **5-BENTA BERRI eta 25-BENTA BERRI-AÑORGA**

Bukaerako geldialdia honela egingo dute:

5L: San Martin kaleko 52an, Auzitegiaren aurrean.

25L: San Martin 54.

Askatasunaren hiribidea 31ko geltokiak, Okendokoak, Boulevard 17koak eta Urbieta 20koak ez dute zerbitzurik izango.

- **16-IGELDO eta 18-SEMINARIOA**

Bukaerako geldialdia **Manterola eta San Martin arteko izkinan** egingo dute.

Askatasunaren hiribidea 31ko geltokiak, Okendoko 5ekoak, Gipuzkoa plazakoak, Boulevard 19koak eta Urbieta 6koak ez dute zerbitzurik izango.

- **21-MUTUALITATEAK-ANOETA eta 28-AMARA-OSPITALEAK**

Bukaerako geldialdia **Santa Katalina zubian** egingo dute.

- Erdialderantz: Okendo 11ko geltokiak, Boulevard 9koak, Urbieta 12koak eta Urbieta 58koak ez dute zerbitzurik izango.

- Amaraantz: Boulevard, Urbieta 12, Urbieta 58koak, Antso Jakituna 12 eta 28, Errondo 3 eta Errondo-Morlanseko geltokiak kenduko dira eta **Santa Katalina zubira, Norteko geltokira eta Pio XII-ra (autobus geltoki zaharra) lekualdatuko dira.**

- **26-AMARA-MARTUTENE**

Bukaerako geldialdia **Santa Katalina zubian** egingo dute.

- Erdialderantz: **Okendo 11 eta Boulevard 9ko geltokiek ez dute zerbitzurik izango.**

- Amaraantz: Boulevard 13, Urbieta 6an, Mendeurrena eta Antso Jakituna 28ko geltokiak kenduko dira eta **Santa Katalina zubira, Norteko geltokira eta Pio XII-ra (autobus geltoki zaharra) lekualdatuko dira.**

- **19-AIETE-BERA BERA**

Easo 19, Okendo 11, Gipuzkoa plaza, Urbieta 6 eta Larramendiko geltokiek ez dute zerbitzurik izango eta **Lizarra 2ra lekualdatuko dira.**

- **23-ERRONDO-PUIO eta 32-PUIO-ERRONDO**

Urbieta 38ko geltokiak eta Mendeurrenekoak ez dute zerbitzurik izango eta **geldialdiak Easo Plaza eta gasolindegi zaharrea egingo dituzte.**

- **8-GROS-INTX, 9-EGIA-INTX, 13-ALTZA, 14-BIDEBIETA, 29-HEGO INTX-SUR eta 42-ALDAPA-EGIA**

Okendo kaleak norabidez aldatuko du eta Erregina Erregentetik sartuko da.

8. eta 29. lineek Okendo kalean egingo dute azken geldialdia, Sakatasunaren hiribidearekiko izkinan.

9. eta 42. lineek Okendo kalean egingo dute azken geldialdia, Kaputxinoen elizaren ondoan.

13. lineak Okendo kalean egingo du ibilbide bukaerako geldialdia, Kamino kalearekiko izkinan.

14. lineak Okendo kalean egingo du ibilbide bukaerako geldialdia, 18 zenbakiaren parean.

Kolon pasealekuko geltokiak, Askatasunaren hiribidea 6koak, Gipuzkoa plazakoak, Okendo 18koak, Boulevard 15ekoak, Boulevard 3koak, Askatasunaren hiribidea 7koak, 15ekoak, 19koak eta 21ekoak ez dute zerbitzurik izango.

- **17-GROS-AMARA-MIRAMON eta 24-ALTZA-GROS-ANTIGUA-INTXAURRONDO**

Bilbo plazako geltokiak, Mendeurrenaren plazakoak eta Antso Jakituna 28koak ez dute zerbitzurik izango eta **Iparreko geltokian, Mundaiz zubian eta Pio XII.ean egingo dute geldialdia.**

- **31-INTXAURRONDO-OSPITALEAK-ALTZA**

Zubiaurre pasealekutik Erdialderantz-Aieterantz: Kursaleko geltokia, Boulevard 15ekoa, Urbieta 6koa eta Larramendikoa kendu egingo dira eta geldialdiak **Kolon pasealekuan eta Lizarra kalean egingo dituzte.**

Ospitaleak-Aietetik Erdialderantz: 19ko geltokia kendu egingo da eta **gasolindegi zaharrera lekualdatuko da.**

- **33-LARRATXO-INTX-ANTIGUA-BERIO**

- **Antiguarantz:** Askatasunaren hiribidea 18ko geltokia, Urbieta 20koa eta Zubieta-San Martinekoa kendu egingo dira eta **Iparreko geltokira lekualdatuko dira.**

Groserantz: Zubieta plazako geltokia Askatasunaren hiribideko 21ekoa kendu egingo dira eta **Foruetara eta Askatasunaren hiribidea 3ra lekualdatuko dira.**

- **36 SAN ROKE-ALDAKONEA**

San Rokerantz: Euskadi plazako geltokia, Askatasunaren hiribidea 20koa, Urbieta 12koa eta Urbieta 38koa kendu egingo dira eta **Norteko geltokira eta eta Arroka plazara lekualdatuko dira.**

Aldakonearantz: ez du geltoki aldaketarik

- **37-RODIL- ZORROAGA**

Zorroagarantz: Gipuzkoa plazako geltokia eta Askatasunaren hiribidea 7koa kendu egingo dira eta **Okendo 18an egingo du geldialdia.**

- **Rodilerantz:** ohiko ibilbidea.

- **45-RENFE-BUS GELT.ANTIGUA-AIETE**

Antigua-Aieterantz: Askatasunaren hiribidea 18ko geltokia, Urbieta 20koa eta Zubieta-San Martinekoa kendu egingo dira eta **Pío XX.ean egingo dute geldialdia.**

Geltokietarantz: Ondarretako geltokia, Zubieta plazakoa eta Askatasunaren hiribidea 31koa kendu egingo dira eta **Foruetan eta Askatasunaren hiribidea 3an egingo dute geldialdia.**

- **46-SAN ANTONIO- MORLANS**

- **Morlans alderantz:** Askatasunaren hiribidea 20ko geltokia, Urbieta 12koa, Urbieta 38koa eta Mendeurrenekoa kendu egingo dira eta **Norteko geltokian egingo dute geldialdia.**

San Antonio alderantz: ohiko ibilbidea.

Informazio gehiagorako, Dbuseko webgunera jo (www.dbus.eus) edo 900 840 146 telefono zenbakira deitu.